

# **Ipuintxo bat gauero**

## **betiko alegiak**

# **II**



**Myrian Sayalerok egokituak**

**Malena Fuentes Alzú  
Esther Pérez Cuadrado**

**ALAI**  
↪



# KANPAIA ETA TXILINA



Muino baten goian, orain mende asko, eliza bat eraiki zuten. Herriko bizilagunak oso harro zeuden hartaz. Mezetara joateko bide estu eta malkar batetik igo behar bazuten ere, tokikoei ez zitzaien axola.





Aitzitik, igande goizetako eginkizun nagusia izaten zen.

—Tira, jaiki —esaten zion okinak semeari—, gaur igandea da, eta mezetara joan behar dugu.

Okinaren semea ziztuan altxatzen zen, izugarri gustatzen baitzitzaion igandetan muinora igotzea. Bide mal-karretik igotzean, elizako kanpai hots ozenak entzuten zituen.

Egia esan, herriak zuen gauzarik onena kanpandorre bikaina zen. Kanpai handi bat zeukaten bertan, aspaldian arbasoek egindakoa. Denek mezetarako kanpaia jo nahi zutenez gero, txandak antolatzea erabaki zuten. Egun hartan, Mieltxoren eguna

zen, on Migelen semea, herriko sendagilea.

Mieltxo ziztu batean jantzi zenez, ez zen konturatu ere egin kolore desberdinetako zapatak jantzi zituela. Eta hantxe





zegoen, kanpandorrearen erdian, sokari indar guztiarekin tira egiten.

Zeremonia handiz egin beharreko ekintza zen. Mieltxo, zapatak alde batera utzita, oso dotore zihuan jantzita. Alkandora zuria garbi-garbia zeraman, lepoa eta eskumuturrak almidoizta-